

IKASKIDE TALDEAK

IKASKIDE TALDEETAKO KIDEEN PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA

Iturria: Bonals, J. (2000): " El trabajo en pequeños grupos en el aula" – Graó – Barcelona

Ikaskide taldeetako kide guztien parte hartze eta inplikazioaren gainean sor dakizkigukeen zailtasunak gainditzen lagun diezaguketzen zenbait ideia eskaintzen dizkigu Bonalsek (2000).

Lehenengo ideia partaidetza lantzearen beharraz hitz egiten du. Partaidetza ez da ikasleriak espontaneoki lortuko duen gaitasuna; sistematikoki landu beharreko gaitasuna da, ondoko hauen bidez:

- Kooperazioan oinarrituz, besteekin egoteko modua justifikatzea.
- Kide guztiak atazan inplikatzeko
- Atazan antolaketa, dinamizazio eta aukeraketan esku-hartzea.
- Taldearen diseinua. Taldearen diseinua ikasleriaren ezagutzan oinarrituta egin behar da, euren laguntza emateko edo eskatzeko gaitasunean, euren arteko afinitateetan, bateraezintasunetan...
- Ataza proposatzen denean. Partaidetzarekin lotutako gaietan ikasleria inplikatzeko:
 - Nola antolatuko lana zarete denon artean egiteko?
 - Nola ziurtatuko duzue lana egiterakoan denek partaidetza nahikoa dutela?
- Atazaren garapenean. Taldearen gain uztea taldeko kide guztien parte hartzearen ardura.
 - Taldearengana jo eta X kidearen parte hartze ezaren arduradun egin.
 - X-enganana jo eta taldearen funtzionamendu eskasaren arduradun egin.
 - Biak
- Atazaren bukaeran : balorazioa.

LAGUNTZA EMATEN ETA ESKATZEN JAKIN

Parte hartzea gelan landu beharko liratekeen trebetasuneki lotuta dago: laguntza ematen eta eskatzen jakitea

Talde berean lau ikasle-soslai aurkituko ditugu: 1) laguntza ematen eta eskatzen dakitenak; 2) laguntza ematen bai, baina eskatzen ez dakitenak; 3) laguntza eskatzen bai, baina ematen ez dakitenak; eta 4) ez dakitenak ez laguntza ematen ez eskatzen.

- **Partaidetza errazten duten rola sustatzea**

- Talde-kohesiora bideratutako rola

- “Besteekin duten harremanarekin gustura egoteko, ikasleak taldean integratuta eta ondo baloratuta (behizat zenbait kideren aldetik) daudela hauteman behar dute; laguntasun harremanak sortzeko aukera izan behar dute, euren buruak errespetatuak direla sentitu eta behar dutenena laguntza izango dutela ikusi”
 - Lan kooperatiboan alderdi hauek guztiak landu beharko lirateke eta ataza arrakastaz egiten lagunduko duten rol positiboak bultzatu behar dira, rol negatiboak lantzen diren bitartean.

- Ataza errazten duten rola

Balitzko rola honako funtzio hauekin daude lotuta:

- ✓ Funtzio antolatzailea (hasi, gaia zentratu, koordinatu, sintetizatu, denbora kontrolatu, ebaluatu)
 - ✓ Funtzio informatiboa (informazioa bildu eta eskatu, datuak...)
 - ✓ Funtzio eraikitzailea (ideiak proposatu, alternatibak eskaini...)
 - ✓ Funtzio kritikoa (zailtasunak identifikatu, akatsak ikustarazi...)
 - ✓ Funtzio sortzailea (ideia berriak sortu...)
 - ✓ Funtzio emozionala (aldarteak adierazi, intuizioak, sentsazioak...)

- Rol negatiboak

- ✓ Blokeatu
 - ✓ Atzera egin
 - ✓ Jolastu
 - ✓ Arreta deitu
 - ✓ Agresioa erabili
 - ✓ Dominatu
 - ✓ Konpetitu

- **Atazan izaerak parte hartzean eragiten du**

Talde kooperatiboan parte hartzen duten kide guztiek erronka positibo gisa ikusi behar dute ataza.

Halaber, atazaren diseinuan, ondoko alderdi hauek izan beharko ditugu kontuan:

- Kide guztien inplikazioa ahalbidetzea
 - Zatikatu, banatu, funtzio desberdinak hartu
 - Zailtasun maila. Atazak zailtasun maila handiegia badu, parte hartzea baldintza dezake.
 - Jarduera irekiak (talde heterogeneoak). Taldeak heterogeneoak direnean, jarduerak garapen maila desberdinak edo lan-eremu desberdinak ahalbidetu behar dituzte.
 - Informazioa, materialak. Material faltak parte hartzea baldintza dezake.
- **Uneak**

Atazaren garapenean honako alderdi hauetan jarri beharko da arreta:

 - Jardueren aukeraketa
 - Plangintza egitea
 - Egikaritze praktikoa
 - Prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa